



ORIENTABIDEAK 2026 EKAINEKO KANPAINA

Dokumentu honen helburua da gako eta orientazio batzuk partekatzea, Caritaseko eragile guztiak eta kristau-komunitatea animatzeko ekainaren 7ko Caritasen kanpaina prestatzera.

Caritasen kanpaineek helburu hauek dituzte: animatzea, sentsibilizatzea eta Jesusek dakarren Berri Ona testigantzan ematea, baita egiten dugun lana ikusaraztea ere.

Material honen edukiak baliagarriak izan daitezke hainbat baliabide prestatzeko: informazio-orria, kanpainaren dinamizazioa, hitzaldiak antolatzea, otoitz uneak prestatzea...

Kanpaina hau Corpus Christi ospakizunaren barruan kokatzen da, Pazko Igandetik 60 egunera. Corpus Christi eguna Jesusek Eukaristian duen presentzia bizia ospatzeko da, baita bizi dugun errealitatea ere. Partekatzea eta mundu hobe bat eraikitzea proposatzen duen gonbidapena da.

Hau da Karitatearen Eguna-ren kanpaina, gogorarazten diguna karitatea ez dela aparteko zerbait, baizik eta egunerokoan bizi dela: bestea hartzen duen begirada batean, kontsolatzen duen besarkada batean, epaitu gabe entzuten duen entzumenean, sostengatzen duen otoitzean.

Leon XIV.a Aita Santuaren hitzetan: *«Keinu zehatzen bidez agertzen den anaitasunaren testigantzak mundu baketsuagoa eraikitzen lagunduko du, borondate oneko gizon eta emakume guztiek euren bihotzean desiratzen duten bezala.»*

Esaldi honek azpimarratzen du ekintza solidario eta anaiartekoak, elkarri laguntzeko keinu sinple eta zehatzak, tresna indartsuak direla itxaropena iragartzeko eta mundua eraldatzeko.

Euskal Herriko eta Nafarroako gotzainen "Kontraste pazientea" pastoraltzaren edukiak ideia nagusi bat du abiapuntu: testigantzan eta pazientzian oinarritutako presentzia kristau baten beharra.

Gizarte anitzean testigantza esanguratsua ematen duten komunitateak eraikitzen deitzen du, munduan gatz eta argi izatera, bizitzaren adibidearen eta koherentziaren bidez.

Aurten Bilboko Elizbarrutiko Caritasen 70. urteurrena ospatzen ari gara. 70 urte Bizkaiko Elizaren konpromisoa ahultasun eta bazterketa egoeren aurrean. Kartelak konpromiso horren logoa jasotzen du.

IDEIA NAGUSIA: boluntarioen konpromisoa ikusarazi, aitortu eta eskertzea. Parte hartzera animatzea, elkartasuna aktibatzea eta anaitasuna sustatzen duten keinu eta ekintzak bultzatzea.

Darte te renta. Eman eta hartu, biak batu.

Eginak 20, 35: "Zorion gehiago dakar emateak hartzeak baino".

Errealitateari begirada

Parte hartu dugun Gizarte Ekintzaren Eredua eguneratzeko azken prozesuak gero eta ahulagoa den gizarte-egoera erakusten digu: komunitate-faltak, eskubide-urraketek, etxebizitza-bazterketak, bakardadeak eta desberdintasunek elkar elikatzen dute, eta horrek ezinbesteko bihurtzen du gizartearen eragitea sendotzea, komunitatea eraikitzea eta gizarte-eskubideen defentsa aktiboa indartzea.

Eliza-testuinguruak trantsizio sakoneko une bati buruz hitz egiten digu, komunitate-lotura sendoen eta eliz partaidetzaren ahultze progresiboaren arteko tentsioak markatua. Nabarmena da fededunen kopuruaren jaitsiera, eta horrek komunitate txikiagoak eta ahulagoak sortzen ditu; aldi berean, ordea, hurbilagoak eta senidetsuagoak dira. Laikoen protagonismo handiagoaren aldeko apustu irmoa dago, bereziki emakumeena, eta Eliza elkarlanean oinarritutako eta sinodalago baterantz aurrera egiteko bidean doa.

Gizarte eta eliza-errealitate honen baitan, jarrera pasiboa gainditu eta errealitate sozialean errotutako Eliza aktiboago baten alde egiteko deia sortzen da; bertan, Caritasen ekintza eta bestelako ekimenak Elizaren aurpegi agerikoa dira. Sarean lan egitearen, komunitatea indartzearen eta parte-hartzearen zain gelditu gabe, errealitate eta kolektibo berriengana irtetearen garrantzia azpimarratzen da.

Bizitzen ari garen egoera honetan, mundu mailako senidetasun-desioa berpizteko gogoia sortzen da: topaketan, adiskidetasunean, alaitasunean eta justizia zein bakearen bilaketan oinarritutako harremanak aitortu eta lantzen dituen bizi-modu bat aukeratzeko gonbita.

Senidetasuna

Senidetasunak eskatzen du beste pertsonak gure errealitatearen parte direla kontuan hartzea. Senidetasuna konbikzio honetatik sortzen da: inork ez lukeela bere mina, bere ahultasuna edo bere pobrezia bakarrik jasan behar.

Senidetasuna bizitza gizatiartzen duten harremanen praktikatik sortzen da.

Senidetasuna benetako maitasunean oinarritzen da; sufritzen duen pertsonarekin topo egiteko gai den maitasuna da, bere sufrimenduarekin errukitzeko, hurbiltzeko eta zaintzeko, nahiz eta familia berekoa, jatorri berekoa edo erlijio berekoa ez izan.

“Senidetasun irekiaz ari gara; gertutasun fisikotik harago, jaioterritik edota bizi den lekutik harago, pertsona bakoitza aitortu, baloratu eta maitatzeko aukera ematen duen senidetasunaz” (Fratelli Tutti 8)

Senidetasunaren esperientziatik abiatuta, susmoa, epaiketa edo zalantza gainditu ditzakegu; samurtasunez ikus dezakegu mina, baina baita besteengan dauden gaitasunak eta dohainak, sinergiak eta aukerak ere, itxaropena sortzeko eta justizia zein ongizate komunerako lan egiteko.

Gure errealitatearen eraldaketa soziala lan kolektibo, komunitario eta garrantzitsu bat da, eta senidetasunak Jainkoaren hurbiltasuna eta bere maitasuna gizateri osoari iragartzeko aukera ematen digu, gure keinu eta ekintzen bidez.

Senidetasuna maitasunezko, pazientziazko eta errukizko keinuekin eraikitzen da. Horrek esan nahi du duintasun berekoak garela aitortzea, beste baten bizitzan gertatzen dena ez dela guretzat arrotz ulertzea, eta elkar zaintza erantzukizun partekatutzat hartzea.

Boluntariotza; senidetasuna gauzatzeko modu bat

Caritasen boluntariotza ekintza solidario eta konprometitutzat ulertzen da, gizartea eraldatzea helburu duena, pertsonen justizia eta duintasuna sustatuz, bereziki ahulenena. Laguntzen, entzuten eta itxaropena ereiten duen sarea da, laguntza jasotzen duen pertsona ez ezik, eskaintzen duena ere eraldatuz. Hortik dator kanpainaren leloa: "Darte te renta".

-Boluntarioek hurkoaren sufrimenduak hunkitzen uzten dute beren burua. Euren erosotasun-eremutik ateratzen dira, eta gure garaiko bakardadeari aurre egiten diote topaketaren bidez. Beren "denda" zabaltzen dute ahulenak hartzeko eta tokia egiteko, eta bihotza jartzen dute gure gizarteak baztertzeko dituen pertsonak duintzeko.

-Boluntarioak hurbiltasunagatik, entzuteagatik eta pertsona bakoitzaren duintasuna aitortzeagatik bereizten dira. Lagundu, sustatu, indartu, ahalbidetu, dinamizatu, antzeman eta eutsi egiten dute; inoiz ez dute ordezkutzen. Pertsona bakoitza bere istorioaren eta garapenaren protagonista izan dadin egiten dute apustu. Pertsona baloratzen dute, eta hitzik gabe adierazten diote haiekin konta daitekeela.

-Boluntarioek irekitasuna erakusten diete pertsona guztiei, nondik datozen edo nora doazen kontuan hartu gabe. Haien zerbitzuak izaera unibertsala du, mugarik gabea, samariar kosmopolitismo bat biziz.

-Boluntarioek elkartasun sare komunitarioak sortzen laguntzen dute, bai salaketarako bai proposamenetarako; taldean lan eginez eta beste pertsona, talde edo erakundeekin elkarlanean, topaketaren kultura sortzea helburu hartuta. "Zoazte sareak konpontzera. Jesusek bere lehenengo apostoluak deitu zituen arrantzaleen sareak konpontzen ari zirela... Gaur, beste sare batzuk eraikitzeke eskatzen digu: harremanen sareak, maitasun sareak, doako trukearen sareak... Apurtuta dagoena konpondu ahal izateko, bakardadea sendatu ahal izateko sareak; jarraitzaile kopurua axola izan gabe, topaketa bakoitzean Maitasunaren handitasun infinitua bizi dadin" (León XIV).

-Boluntarioek argi dute ez dela soilik ematea eta partekatzea; pobretutako pertsonengandik ere jasotzen dute, eta horrela elkarrekikotasunezko harremana sortzen da, gizatasunaren eta topaketaren espazioa, senidetasun berri baten lekuko izateko.

-Boluntarioek sinesten dute gizarte gizatiarrago eta bidezkoago baterako aldaketa posible dela. Ongizate komunaren alde egiten dute lan, gizateri osoak duintasunez bizi ahal izateko baldintza egokienak sortzea bilatuz, pobrezia eta bazterketa sortzen dituzten mekanismoen aurka borrokatuz.

-Boluntarioek prestakuntza zaintzen dute eta beren konpromisoa bultzatzen eta eusten duen espiritualtasuna lantzen dute. Konpromiso hau komunitatetik bizitzen dute, komunitateak "fedea kalera ateratzeko" bidaltzen dituela sentituz, sufrimendua dagoen tokira joateko eta itxaropenaren seinale ukigarriak ereiteko.

-Caritaseko boluntariotza, beraz, ez da soilik laguntza, baizik eta pobrezia edo gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen laguntzan presentzia esanguratsu eta eraldatzailea.

-Konpromiso boluntario hau bizimodu bihurtzen da: izateko modu bat, bizitzeko eta harremanak izateko era bat, bizitzako arlo guztietara hedatzen dena.

“Ez dira ‘egitean’ bakarrik geratzen, baizik eta ‘elkarrekin ibiltzeko’ konpromisoa hartzen dute, besteengan senideak aitortuz, bakoitza bere duintasunarekin eta bere historiarekin” (León XIV).

Proposamenak

Senidetasuna agerian uzten duten keinu konkretuak egitera gonbidapena: zubiak eraikitzen dituzten, elkarrizketak pizten dituzten eta senidetasunez arnasten duten bizitzako espazioak sortzen dituzten keinu ukigarriak.

- Ez igaro albo batetik. Gelditu eta hartu denbora pixka bat beste pertsonetikiko interesa izateko, haiei entzutea zer gertatzen zaien, zer sentitzen duten, zer behar duten, zer adierazi nahi dizuten. Eztabaidatu, lasaitasunez.
- Harrera egin pertsoneri, zure epaiketen, baldintzen edo oztopen iragazkirik jarri gabe. Harritu zaitetz beste pertsonen edertasunaz, haien asmamenaz, eskuzabaltasunaz, ausardiaz, dohainaz... eta eskertu jasotzen duzuna.
- Utzi alde batera urruntasunez begiratzeko modua, bereizketak eta distantziak sortzen dituena. Ez izan beldurrik pertsonak zu bezalakoak ez direlako, ez pentsamoldeagatik, ez ohitura edo ideiegatik. Ez saiatu konbentzitzen edo aldatzen. Hitz egin, trukatu, bilatu elkartzen zaituena eta gonbidatu zerbait elkarrekin egitera.
- Enpatia landu, pentsa nola senti daitekeen zure ondoan dagoen pertsona. Sustatu hurbiltzen duten loturak, bideak, ametsak eta borroak partekatzea gonbidatzen dutenak. Zu nik bezala. Ni zu bezala. Duintasun berarekin.
- Ikasi gertukoekin keinu eskuzabal eta doakoetatik, aitortu eta baloratu itzazu. Ezagutzen dituzun boluntarioei galdetu haien esperientziez, ikasketez, bizipenez... Baliteke esatea bizi izan duten esperientziak laguntza jasotzen duenaren bizitza ez ezik, laguntzen duenarena ere eraldatzen duela.
- Partekatu dituzun ondasunak eta zaren hori, sortu irekitasuna, eskuzabaltasuna eta konfiantza. Ez zaitzala mugiarazi edukitzeko edo bizitza ziurtatzeko grinak.
- Sareko elkartasuna sustatu, aniztasunetik, tolerantziatik eta duintasunaren defentsatik parte hartzeko aukera ematen duen sare zabala.
- Konfiantza landu, lan eginez eta jardunez, baina jakinik dena ez dagoela zure esku. Beharrezkoa da giza ahaleginaren eta Jainkoarenganako konfiantzaren arteko oreka. “Lan egin dena zugandik balitz bezala” gizakiaren ardurari egiten dio erreferentzia; “jakinik dena Jainkoaren esku dagoela” gure protagonismoa relatibizatzen du. San Inazio Loiolakoak honela adierazi zuen: “Ez da beharrezkoa nekatzea, baizik eta ahalegin egoki eta nahikoa egitea, eta gainerakoa nahi duen guztia egin dezakeenaren esku uztea”.

- Inplikatu zaitetz ongizate komunean, eduki etikorik gabeko demokrazia baten eta politikarekiko urruntasunaren aurrean.

Caritasen, zaugarritasuna eta bazterketa sufritzen dutenekin hartutako konpromiso boluntarioa aitortu eta eskertzen dugu. Balio handia ematen diegu bihotz handiko boluntarioei, Caritasen konfiantza jarri eta beren zerbitzua eskaintzen dutenei. Munduak behar ditu bere bizitzarekin indibidualismoa eta axolagabekeria gainditzeko gai diren pertsonak.

Otoitza

Zorionekoak, Jauna gizon solidarioak.
Zorionekoak, Jauna, emakume solidarioak.
Irribarreak eta itxaropena ereiten dabezanak.
Euren ogia gosetiagaz banatzen dabenak.
Mundu hobearen eraikuntzan laguntzen dabenak.
Bizia ugari banatzen dabenak musu-truk.
Jainkoaren Erreinuan sinistu eta sortzen dabenak.
Bidebakokeriaren aurka ozen berba egiten dabenak.
Besaulkian eserita itxaroten ez dabenak.
Bakegileak.
Euren bizitza zerbitzuzko bokazino bihurtzen dabenak.
Pertsona guztien bardintasun eta duintasunaren alde egiten dabenak.
Zorionekoak guztiak, Jauna.



ORIENTACIONES CAMPAÑA JUNIO 2026

Este documento tiene como objetivo compartir algunas claves y orientaciones para animar al conjunto de agentes de Cáritas y a la comunidad cristiana a preparar la campaña de Caritas del día 7 de junio.

Las campañas de Cáritas buscan ANIMAR, SENSIBILIZAR y DAR TESTIMONIO de la Buena Noticia de Jesús al resto de la comunidad cristiana, así como MOSTRAR la labor que realizamos.

El contenido de este material puede servir para preparar diferentes recursos: hoja informativa, dinamización de la campaña, organizar una charla, preparar un tiempo de oración....

Esta campaña se enmarca en la celebración del Corpus Christi, 60 días después del Domingo de Resurrección. La fiesta del Corpus Christi es celebrar la presencia viva de Jesús en la Eucaristía y la realidad que vivimos. Una invitación a compartir y construir un mundo mejor.

Esta es la Campaña del Día de Caridad que nos recuerda que la caridad no es algo extraordinario, sino que habita en lo cotidiano: en una mirada que acoge, un abrazo que consuela, una escucha que no juzga, una oración que sostiene.

En palabras del Papa León XIV: *“El testimonio de la fraternidad, manifestado con gestos concretos, contribuirá a construir un mundo más pacífico, como lo desean en su corazón todos los hombres y mujeres de buena voluntad.”*

Esta frase destaca que las acciones solidarias y fraternas, gestos sencillos y concretos de ayuda mutua, son herramientas poderosas para anunciar esperanza y la transformación del mundo.

El contenido de la carta pastoral de los Obispos del País Vasco y Navarra “El contraste paciente” parte de una idea central: la necesidad de una presencia cristiana marcada por el testimonio y la paciencia. Una llamada a construir comunidades que ofrecen un testimonio significativo en una sociedad plural, a ser sal y luz en el mundo a través del ejemplo y la coherencia de vida.

Este año estamos celebrando el 70 aniversario de Cáritas Diocesana de Bilbao. 70 años de compromiso de la Iglesia de Bizkaia con las situaciones de vulnerabilidad y exclusión. El cartel recoge el logo de este compromiso.

IDEA CENTRAL: Visibilizar, reconocer y agradecer el compromiso de las personas voluntarias. Animar a participar, activar la solidaridad, fomentar gestos y acciones que impulsen la fraternidad.

Darte te renta. Eman eta hartu, biak batu.

Mirada a la realidad

El reciente proceso de actualización del Modelo de Acción Social en el que hemos participado nos muestra un escenario de fragilidad social creciente, donde la falta de comunidad, la vulneración de derechos, la exclusión residencial, la soledad y la desigualdad se retroalimentan, haciendo imprescindible reforzar la incidencia social, la creación de comunidad y la defensa activa de los derechos sociales.

El contexto eclesial nos habla de un momento de transición profunda, marcada por una tensión entre vínculos comunitarios sólidos y un debilitamiento progresivo de la participación eclesial. Destaca la disminución de la feligresía, lo que provoca comunidades más pequeñas y frágiles, pero al mismo tiempo más cercanas y fraternales. Hay una apuesta firme en la necesidad de un mayor protagonismo del laicado, especialmente de las mujeres, y el avance hacia una Iglesia corresponsable y sinodal.

En este escenario de realidad social y eclesial, surge la llamada a salir de una actitud pasiva y apostar por una Iglesia más activa, encarnada en la realidad social, donde la acción de Cáritas y otras iniciativas se reconocen como rostro visible de la Iglesia. Se insiste en trabajar en red, fortalecer la comunidad y no limitarse a “esperar” la participación, sino salir al encuentro de nuevas realidades y colectivos.

En este escenario que nos toca vivir surge el anhelo de poder hacer renacer un deseo mundial de fraternidad. Una invitación a elegir una forma de vida que reconoce, que aprende a relacionarse desde el encuentro, la amistad, la alegría y la búsqueda de la justicia y la paz.

Fraternidad

La fraternidad requiere considerar que las otras personas forman parte de nuestra realidad.

La fraternidad nace de la convicción de que nadie debería sufrir en soledad su dolor, su vulnerabilidad, su pobreza.

La fraternidad surge de la práctica de relaciones que humanizan la vida.

La fraternidad se basa en el amor real, capaz de encontrarse con la persona que sufre y compadecerse de su sufrimiento, de acercarse y cuidar, aunque no sea de su propia familia, origen o religión.

“Se trata de una fraternidad que es abierta, que permite reconocer, valorar y amar a cada persona más allá de la cercanía física, más allá del lugar del universo donde haya nacido o donde habite”
(Fratelli Tutti 8)

Desde la experiencia de la fraternidad podemos mirar más allá de la sospecha, el juicio o la duda; podemos ver con ternura el dolor y también las capacidades y los dones, las sinergias y las oportunidades que hay en la otra persona para generar esperanza, para trabajar por la justicia y el bien común.

La transformación social de nuestra realidad es una tarea colectiva, comunitaria y trascendente y la fraternidad nos permite anunciar la cercanía de Dios y su amor a toda la humanidad, a través de nuestros gestos y nuestras acciones.

La fraternidad se construye con gestos de amor y paciencia y misericordia. Esto implica reconocernos como iguales en dignidad, entender que lo que le sucede a una vida no nos es ajeno y asumir el cuidado mutuo como una responsabilidad compartida.

El voluntariado; una forma de concretar la fraternidad

El voluntariado en Cáritas se define como una acción solidaria y comprometida que busca transformar la sociedad, promoviendo la justicia y la dignidad de las personas, especialmente las más vulnerables. Es una red que acompaña, escucha y siembra esperanza, transformando tanto a quien recibe ayuda como a quien la ofrece. De ahí el lema de la campaña “Darte te renta”.

- Las personas voluntarias se dejan afectar por el sufrimiento del prójimo. Salen de su zona de confort y afrontan la soledad de nuestro tiempo desde el encuentro. Ensanchan su tienda para acoger y hacer sitio a las personas más vulnerables y ponen su corazón para dignificar a quienes nuestra sociedad descarta.
- Las personas voluntarias se caracterizan por la cercanía, la escucha y el reconocimiento de la dignidad de cada persona. Acompañan, promueven, potencian, posibilitan, dinamizan, detectan, sostienen, nunca suplen, apuestan porque cada persona sea artífice de su propia historia y desarrollo. Valoran a la persona y le dicen sin palabras que se puede contar con ellas.
- Las personas voluntarias muestran apertura a todas las personas, sean de donde sean y vengan de donde vengan. Su servicio tiene un carácter universal, sin fronteras, viviendo un cosmopolitismo samaritano.
- Las personas voluntarias colaboran en la creación de redes comunitarias de solidaridad, de protestas y propuestas, trabajando en equipo y colaborando con más personas, grupos o instituciones, con el fin de generar una cultura del encuentro. “Id a reparar las redes. Jesús llamó a sus primeros apóstoles mientras reparaban sus redes de pescadores.... Él nos pide hoy que construyamos otras redes: redes de relaciones, redes de amor, redes de intercambio gratuito... Redes donde se pueda reparar lo que está roto, donde se pueda curar la soledad, sin importar el número de seguidores, sino experimentando en cada encuentro la grandeza infinita del Amor” (León XIV)
- Las personas voluntarias tienen claro que no sólo dan y comparten, sino que también reciben de las personas empobrecidas, estableciéndose así una relación de reciprocidad, un espacio de humanidad y encuentro, con el fin de testimoniar una nueva fraternidad
- Las personas voluntarias creen posible el cambio hacia una sociedad más humana y más justa. Trabajan por el bien común, buscando crear las mejores condiciones para que toda la humanidad podamos vivir dignamente, luchando contra los mecanismos que generan pobreza y exclusión
- Las personas voluntarias cuidan la formación y cultivan una espiritualidad que anima y sostiene su compromiso. Viven este compromiso desde la comunidad sintiendo que es esta quien les envía a “callejear la fe” donde habita el sufrimiento y a sembrar signos tangibles de esperanza,

El voluntariado en Cáritas se presenta, por tanto, no solo como una ayuda, sino como una presencia significativa y transformadora en el acompañamiento a las personas en situación de pobreza o exclusión social.

Este compromiso voluntario se convierte en un estilo de vida. Un modo de ser, una forma de vivir, de relacionarse, que impregna todas las facetas de la vida.

“No se limitan a “hacer por”, sino que se comprometen a “caminar con”, reconociendo en los otros hermanos y hermanas, cada uno con su dignidad y su historia” (León XIV)

Propuestas

Invitación a hacer gestos concretos que hacen visible la solidaridad, gestos tangibles que tienden puentes, provocan conversaciones y espacios de vida que respiran fraternidad.

- No pases de largo. Detente y dedica un rato de tu tiempo para interesarte por otras personas, para escuchar lo que les pasa, lo que sienten, lo que necesitan, lo que quieren expresarte. Dialoga, no tengas prisa.
- Acoge a las personas sin poner el filtro de tu juicio, tus condiciones, tus barreras. Sorpréndete de la belleza de otras personas, de su ingenio, su generosidad, su valentía, su don... y agradece lo que recibes.
- Deja a un lado la forma de mirar distante que busca diferenciar y poner distancias. No tengas miedo de que las personas sean diferentes a ti, de que piensen distinto, de que sus costumbres o sus ideas estén alejadas de las tuyas. No busques convencerlas ni cambiarlas. Conversa, intercambia, busca lo que os une e invita a hacer algo en común.
- Practica la empatía, piensa en cómo se puede sentir la otra persona con la que estás. Fomenta vínculos que acerquen, que inviten a compartir caminos, sueños y luchas. Tú como yo. Yo como tú. Con la misma dignidad.
- Aprende de los gestos generosos y gratuitos de quienes están cerca, a nuestro lado, reconócelos, valóralos. Pregunta a las personas voluntarias que conozcas por su experiencia, sus aprendizajes, vivencias, ... Es posible que digan que es una experiencia que transforma la vida de quien recibe la ayuda, pero también de quien ayuda.
- Comparte los bienes que tienes y eres, genera apertura, generosidad y confianza. Que no te mueva el afán de tener y asegurar la vida.
- Promueve la solidaridad en red, una red amplia en la que participar desde la diversidad, la tolerancia y la defensa de la dignidad.
- Cultiva la confianza, trabajando y actuando, pero con la certeza de que todo no depende de ti. Es necesario el equilibrio entre el esfuerzo humano y la confianza en Dios. “Trabaja como si todo dependiese de ti” alude a la responsabilidad humana “sabiendo que todo depende de Dios” nos hace conscientes de que no somos protagonistas. San Ignacio de Loyola lo expresaba así: “No hay necesidad de desgastarse, sino hacer un esfuerzo competente y suficiente, y dejar el resto a aquel que puede hacer todo lo que quiera”.

- Implicate en el bien común frente a una democracia vacía de contenido ético y desafección por la política.

En Cáritas reconocemos y agradecemos el compromiso voluntario con quienes sufren vulnerabilidad y exclusión. Damos mucho valor a las personas voluntarias de gran corazón que confían en Cáritas para prestar sus servicios. El mundo tiene necesidad de personas capaces de contrarrestar con su vida el individualismo y la indiferencia.

Oración

Bienaventurados, Señor, los solidarios.
Bienaventuradas, Señor, las solidarias.
Los que siembran sonrisas y esperanza.
Las que comparten su pan con el hambriento.
Los que ayudan a construir un mundo mejor.
Las que dan mucha vida sin esperar nada a cambio.
Los que creen y crean el Reino de Dios.
Las que alzan su voz contra la injusticia.
Los que no esperan sentados en un sillón.
Las que construyen la paz.
Los que hacen de su vida vocación de entrega.
Las que defienden la igualdad y la dignidad de toda persona.
Bienaventurados y bienaventuradas sean Señor.